# AHTren AURKAKO AKANPADA
## Uztailaren 24tik abuztuaren 2ra Izurtzan




AHTren aurkako XIV Akanpadara iritsi gara. Uztailaren 24tik abuztuaren 2ra egingo da urtetik urtera Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Aurkako Asanbladak antolatu duen kanpaldia, Izurtzan (Durangaldean dago herrixka hori). Hori dela eta, akanpadan parte hartzeko dei egiten diogu jende guztiari, proiektu suntsitzaileen aurka aritzen diren pertsonak ezagutu, elkarrekin koordinatu eta indarrak batuta, erresistentzia eremu bat osatzeko, desarrollismoari eta beste zapalkuntzei aurre eginez. Halaber, abuztuaren 1ean AHTren obren eremura egingo den manifestazioan ahalik eta jende gehien biltzeko animatu nahi dugu, AHT gelditzea guztion esku baitago.

Betikoari eutsiz eta ideiak berriak garatuta, aurten hitzaldiak, eztabaidak, mendi-martxak, protesta ekintzak, umeentzako jokoak, e.a. izango ditugu. Beti igual eta beti diferente, berriro ere topagune asanbleario eta autoorganizatuan elkartu, eztabaidatu eta lanean aritzeko aukera ezin hobea dugu; energiaz betetzeko eta berrindartuta borrokari heltzeko aukera, alegia.

Izurtzako herria errepideak erdibituta dago, Mañariako harrobien ondoan dago eta orain AHTa eraikitzeko lanak ere hortxe dituzte. Txikizio egoera hau ez da inondik inora salbuespena, beste auzo eta herri askotako isla baino. Herritarren lurrak lapurtzen ari dira, inguruak poliziaz bete dituzte eta obraren kalteak gero eta handiagoak dira, Tabiran, Larrinagatxun, Orozketan eta Eguzkitzan. Eraso larri horiek aurrean, aurtengo akanpadan obretara manifestazioa egingo dugu, abuztuaren 1ean, denon artean AHTrik ez! oihua makinen orroaren gainetik nagusitzeko.

Badakigu botereak ez duela bere irrika erraz baztertuko. AHTk suposatzen duen zentzugabekeria ekologiko, sozial eta ekonomikoaren eztabaidari heldu ordez, Euskal Herrian AHTren gatazka "estatu arrazoia"ren menpe ipini dute, herri mugimendua kriminalizatu eta zigortzeko asmoz. Hori ikusita tinko eutsi behar dugu.

Akanpada desarrollismoaren aurkako borrokan bilgune bada ere, ez da bakarra. AHTren aurkako borroka ez da gaur goizeko kontua eta hamaika talde ari gara herrietan lanean. Bide luzea dugu egina eta egunez egun eta tokian tokiko dinamikaren bidez, gure mezua argia eta ozena izan dadin ari gara borrokan. Bizi dugun jendarte-eredu kapitalista eta jasangaitzarekiko ikuspegi kritikoa garatu nahi dugu, amalurrari horrenbeste eragiten dizkion sistema inposatzailerik egongo ez den bizitza orekatu eta aske baten alde.

Beraz, akanpadara etortzeko dei egiten dizuegu, baita zuen inguruan zabal dezazuen ere. Une goxoak pasatuko ditugu, barre, jai eta lanerako beta izango dugu. Eta aurrerantzean gogoz eta irrikaz jarraitzeko asmoa dugunez, elkarrekin egoteak hartuko dugun bidea argitzen lagunduko digu, ideiak eta proposamenak konpartitu eta gerora tokian tokiko lanarekin jarraitzeko.

## AHTren obretara manifestazioa manifestazioa deitu du AHTren Aurkako Asanbladak abuztuaren 1ean Durangon:

"Euskal Y"-aren obretara manifestazioa deitu du AHTren Aurkako Asanbladak, abuztuaren 1ean, larunbatarekin, Durangon. Espainiako Sustapen Ministerioak AHTren obrak Gasteiz-Bilbo ibilibide osoan hedatu eta inposatzeko hartu duen erabaki larriari erantzun indartsua eman nahi dio mobilizazio honek. Manifestazioa eguerdiko 12tan Durangoko Andra Mari plazatik abiatuko da eta AHTren eraikuntza lanek Iurretako Orozketa auzoan hondatutako eremura joko du.

**Manifestazioaren deialdia AHTren aurka dauden pertsona eta talde guztiei zabalik dago.** Hori dela eta, bat egin nahi duten talde eta erakunde guztiei mobilizazio honetan era aktiboan partehartzeko eta atxikimendua adierazteko dei egiten diegu. Manifestazioaren aurreko egunetan emango dira ezagutzera deialdiarekin bat egin duten atxikimenduak.

Beraz, **deialdi honekiko sostengua adierazi, edota manifestazioari begira proposamenak egin nahi badituzue, harremanetan jar zaiztezte:**

**AHTren AURKAKO ASANBLADA**
Tlfnoa: 695715510 / @mail: ahtez@sindominio.net

# ACAMPADA CONTRA EL TAV
# Del 24 de julio al 2 de agosto en Izurtza




Hemos llegado a la XIV Acampada contra el TAV. La acampada, que año tras año viene organizando la Asamblea contra el TAV, tendrá lugar en Izurza, un pueblo del Duranguesado, del 24 de julio al 2 de agosto. Por esa razón, llamamos a participar en ella a todo el mundo, para que puedan conocerse las personas que se oponen a los proyectos destructores, se coordinen y, uniendo fuerzas, creen así un espacio de resistencia, a fin de hacer frente al desarrollismo y al resto de formas de opresión. Asimismo, queremos animar a que se junte la mayor cantidad de gente posible en la manifestación que se celebrará el 1 de agosto hasta las obras del TAV, porque parar el TAV es responsabilidad de todos.

Manteniendo lo que ha sido propio de las acampadas, y desarrollando nuevas ideas, este año tendremos charlas, debates, salidas al monte, acciones de protesta, juegos para niños, etc. Será una oportunidad magnífica para juntarse una vez más en un espacio asambleario y autoorganizado, siempre igual y siempre diferente; es decir, la oportunidad de reponer energías y volver con más fuerzas a la lucha.

El pueblo de Izurza está atravesado por una carretera, junto a la cantera de Mañaria, y ahora mismo las obras del TAV quedan al lado. Esta destrucción no tiene nada de casual, sino que es un ejemplo de lo que ocurre en otros pueblos y barrios. Mientras roban las tierras de los habitantes, llenan los alrededores de policías, y los destrozos causados por las obras van a más, en Tabira, Larrinagatxu, Orozketa e Eguzkitza. Ante estas agresiones tan graves, en la acampada de este año haremos una manifestación a las obras el 1 de agosto para que nuestro grito colectivo de AHTrik ez! se oiga por encima de las máquinas.

Sabemos que el poder no cejará en sus planes fácilmente. En lugar de abordar el debate acerca de la sinrazón ecológica, social y económica del TAV, han sometido el conflicto del TAV en Euskal Herria a la "razón de Estado", con el objetivo de criminalizar y castigar al movimiento popular. Por ello, hemos de mantenernos firmes en nuestra lucha.

Si bien la acampada es un punto de encuentro en la oposición al desarrollismo, no es el único. La lucha contra el TAV no nació ayer, y son decenas los grupos que están trabajando en los pueblos. Hemos recorrido un camino largo y, mediante dinámicas locales y cotidianas, estamos peleando para que nuestro mensaje sea oiga alto y claro. Pretendemos desarrollar una perspectiva crítica con la sociedad capitalista e insostenible en que vivimos, y a favor de una vida equilibrada y libre en que no quepa el sistema de imposiciones que tantos daños está causándole a la tierra.

Por todo ello, os convocamos a venir a la acampada y también a que difundáis esta llamada en vuestro entorno. Podremos pasar buenos momentos, de risa, fiesta y trabajo. Y como pretendemos seguir con todo nuestro empeño en el futuro, estar juntos nos servirá para iluminar el camino que hayamos de seguir, compartiendo ideas y propuestas y profundizando en el trabajo diario.

## La Asamblea Contra el TAV convoca una manifestación a las obras del TAV el 1 de agosto en Durango:

La Asamblea Contra el TAV convoca una manifestación a las obras del TAV para el sábado 1 de agosto en Durango. El objetivo de esta movilización es responder con fuerza al intento por parte del Ministerio de Fomento de acelerar e imponer las obras de la "Y vasca" en todo el ramal Vitoria-Gasteiz/Bilbao. La manifestación partirá a las 12'00h desde la plaza Andra Mari de Durango y se dirigirá hasta el destrozo que las obras está ocasionando en el barrio Orozketa de Iurreta.

**La convocatoria de esta manifestación está abierta a la adhesión de todas las personas y grupos que deseen mostrar su apoyo.** Hacemos por ello un llamamiento a participar activamente en esta manifestación y nos dirigimos a todos los colectivos que quieran sumarse a la convocatoria para que muestren su apoyo y adhesión. Días antes de la manifestación se hará pública la lista de apoyos. **Si queréis respaldar esta iniciativa o realizar propuestas de cara a la manifestación, poneros en contacto:**

**ASAMBLEA CONTRA EL TAV**
Tlfno 695715510 / @mail: ahtez@sindominio.net

# EGITARAUA / Programa

**Osteguna 23:**
**19'00: Izurtzako herritarrei aurkezpena: Luntxa** (plazan) **eta Bertsolariak baserriz baserri:** Eneko Abasolo **"Abarkas"**, **Miren Amuriza** eta Eñaut Uruburu **"Lepotxo"**.

**Ostirala 24:**
Goiza libre (akanpadaren montaketa lanak).
**18'30: "Orkresta Nazionala"** elektro-txarangarekin **kalejira**. Irteera Durangoko Gaztetxetik.
**21'00: Antzerkia** / *Teatro*: **"AHTren izenean Amen!"**, Durangoko San Ana plazan.

**Larunbata 25:**
**9'30: Bizikleta Martxa Elorriora.** Irteera Izurtza (9'30) – Tabira – Durango (9'50) – Astola – Abadiño (10'30) – Mendiola – Atxondo (11'00) – Iguria (11'30) - Elorrio.
**12'00: Luntx herrikoia** Elorrioko plazan.
**16'00: "TAV: Las razones del NO" liburuaren aurkezpena** Josu Larrinaga eta Iñaki Barcenaren eskutik (Izurtzan) / *Presentación del libro "TAV: Las razones del NO".* **17'00: Tailer etnobotanikoa "Landereen erabilera tradizionalak Euskal Herrian"** (sendabelarrak, jateko belar eta fruituak…), Dani Perez eta Gorka Menendez-en eskutik / *Taller etnobotánico sobre usos tradicionales de plantas en Euskal Herria.* **21'00: Kontzertua** Durangoko gaztetxean: AHTren aurkako ekintzen bideoa, La Banda del Abuelo eta beste.

**Igandea 26:**
**9'30: Mendi ibilaldia, Mañaria eta Atxarteko harrobiak eta inguruak** (4'30 ordu oinez): Markomin-Goikoa, Atxarte, Zallobenta eta Mutxate. Vuelta a Untxillatx para ver las canteras de la zona (4'30 horas andando). Izurtza (9'30) – Atxarte (11'00) – Untxillaitxeko lepoa (13'00) – San Martin ermita – Kapaneta auzoa – Mañaria. **14'00: Bazkaria Mañarian**.
**17'00: Proiektu Txikitzaileen aurkako taldeen Topaketa** (Izurtzan): Jaizkibel Bizirik, Mendiak Aske, Coke plantarik ez, Errausketaren aurkako Koordinadora,Tentsio Altuko Linearen kontrako taldea, "Durangaldeko Proiektu desarrollistak" txostenaren egileak. **20'00: Jendarteko jolasak eta herri kirolak**
**23'00: Poesia emanaldia eta antzerkia** / *Recital de poesia y Teatro:* "Sopa sin sorber" y "En el aire", "El artista del hambre" (Izurtzako frontoian).

**Astelehena 27:**
(Goiza libre, proposamenak akanpadan). **17'00: AHT EZ ORDAINDU** desobedientzia kanpainaren balorazioa egiteko batzarra. **19'00: "Requiem" liburuaren aurkezpena**, Xipri Arbelbide (aintzinako munduaren heriotza Euskal Herrian) / Presentación del libro "Requiem". **23'00: Musika: Khantoria** (Ander Berrojalbiz: violina, Maider Pópez: viola) **eta Violinaren Ahotsa** (Musika Barrokoa eta Herrikoia).

**Asteartea 28:**
**10'00: "Asanbladaren botereak; botereak asanbladan"**, tailerra. **18'00: Batzarra eta Eztabaida**: **Borrokak antolatzeko erak** / *Asamblea y Debate sobre las formas de organizar las luchas*. **23'00: Zinema** "La historia de las cosas" eta "La isla de las flores" (frontoian).

**Asteazkena 29:**
**10'00: AHTren aurkako mendi martxa** Abadiño eta Durangoko lur kaltetuetara (3'30 ordu oinez) / *Marcha montañera a las zonas afectadas por las obras del TAV (3'30 horas andando).* **17'00: Umeentzako Pailazoak** (Izurtzako plazan): Pantxika eta Txinpartaren **"Ederra zalaparta"** ikuskizuna. **19'00: Presentación del libro "Bienvenidos a la máquina"**, Editorial Klinamen. **23'00: "Café-Tertulia sobre la Crisis"**, dinamizado por el grupo Ruptura de Madrid..

**Osteguna 30:**
Goiza libre (Akanpadan proposamenak). **17'00: Uda amaierako martxa prestatzeko batzarra**. **19'00: Langraitzeko makro-espetxearen inguruko hitzaldia**, Autodefentsa Taldearen eskutik / *Charla sobre la macro-cárcel de Langraitz.* **23'00: Antzerkia** / *Teatro*: **"Hilario MORTIMER"** Clown ikuskizuna, Kukubiltxo Lur zabal.

**Ostirala 31:**
**10'00: Taller sobre agroecología**, Marc Badal.
**17'00: Hitzaldia** / *Charla:* ***"La lucha dentro de las cárceles en los años 70 y 80",*** Stephan Wisnieusky (Alemaniako RAF taldeko kide ohia / *ex-miembro de la RAF)*. **19'00: Charla sobre "Insumisión a las penas multa"** (Bartzelona). **23'00: Antzerkia** / *Teatro*: **"Karakolaren gaua"**, Zurrunka taldearen eskutik.

**Larunbata 1:**
**12'00: AHTren Obretara manifestazioa** / Manifestación a la zona de obras del TAV. Irteera Durangoko Andra Mari plazatik. **23'00: Izurtzan Jaia eta Kontzertua**: Krimen y Castigo, Trastorno, DJ Talo…

**Igandea 2:**
**12'00: "Destrozos del TAV en Asturies"** (Exposición de fotos y pequeña charla informativa de habitantes del valle de Lena). **13'00: Charla y debate sobre "Drogas, salud mental y luchas anticapitalistas"**. **17'00: Akanpadaren balorazio batzarra**